

Gaixo apaizak eta ex-seminaristak!

Gaur goizean *Tribuna Vasca*-n agertutako artikulua bat bidali dit adiskide batek: «El callejón sin salida de la euskaldunización». Jose María Basalduak idatzia. Fetxarrik gabe, eta gaurko zenbait erreferentzia ahaztuta, ikusi izan banu, *La Voz de España* batek, *La Unidad*-ek, *El Diario Vasco* batek 1937 inguru ilun hartan idatzitakotzat joko nuen. Ba, ez, 1983an idatzita dago, urtarrilaren 30ean.

Baina noan arira.

Apaizak ez dira oso ondo gelditzen artikulua horretan. Be-rauek dute, egileak hainbeste gorrotatzen duen, abertzaletasunaren errua: «delirio clerical fascista que es el nacionalismo vasco». Abertzaletasuna inbentu hutsa da, eta inbentu horrekin «resecos caletres clericales han alienado, enloquecido, cuando no criminalizado como en el caso de ETA, a un amplio sector de su propio pueblo». Eta Euskadi, zer da Euskadi? «Esperpento clerical fascista» da Euskadi. Eta, agi denez, euskararen normalizapena eta euskalduntzea, «patrañas y monsergas de la clerecía euskaldun».

Egoera honen aurka borrokatzaera deitzen gaitu J.M. Basalduak. «La necesaria desalienación» delakoa proposatzen digu: «liberar a este buen pueblo vascongado de los mitos y engaños de su clerecía —y de sus acólitos nacionalistas—, en que ha estado secularmente ahejorrado».

Basalduaren artikulua lurrarean nongoen, artean, zein alienatua nintzen pentsatzen eta senditzen; desalienatzea: espainoltzea da eta haren ustetan. Horretan nagoela, maiatzaren biko *Hoja de Lunes* hartzen dut eskutan, eta han Federico Krutwig Sagredoren artikulua. Tituluak erakarrita, agian. «Kultur alienazioa» deitzen bait da idazlana. Eta zer da eta, alienaziope batetik irten aurretik beste batean sarturik ikusten dut neure burua. Ez naiz euskal kulturazale jatorra, espainarra naiz euskaraz idatzi arren, ez naiz euskaldun jatorra.

Krutwigek dioenez, kultura espainolak janda dago euskal kultura, alienaturik, menperatzailearen kultura onartu egin bait dugu. «Kanpoko kultura ethnophono baten bidez alienaturik» gaude; «español kulturaren pithêkoak» gara gizajook. Eta? Hona bigarren partea: zeinek du egoera honen errua? Zeinek izango du ba, ex-seminaristak, edo nahiago bada, «euskal mikro intelektualak». Hona pasarte bat:

«Euskaldunen kontra aspaldidanik Statu españolek eta frantsesek hunelako krimena praktikatu dute, eta gaur eguneko euskaldunik asko' hunelako ethnophoniaren produktu mesprezagarrria baizik ez dira. Eta nola menperatu herriek bethi beren menperatzaileen kultura onhartzen bait dute, eta munduan bakharrik eta soilik dagoen kultura gora dela uste bait dute, halatan ere euskaldunek' españar eskolaren bidez beren kultura osoa hartu dute, eta ez dakite kultura huntatik kanpoan pentsatzen, eta hunela kulturaz kolonizatu dagoen zentral Afrikako herriak bezalakoak dira. Huni buruz' epokha batetan non Euskalherrian ia ezein ere egiazko kultura sartzen ez zen, baserriarrak' kulturgabeko izan zitezken: bainan ez zegoen kanpoko kultura ethnophono baten bidez alienaturik. Gaur egunean, ordea, erdal eskolaren bidez euskal mikro intelektualak, bethi españar kulturaren pithêkoak dira. Eta batez ere, nola Euskalherrian seminarioak bethi Euskalherriaren desnazionalizakuntzaren mintegiak izanik bait dira, kultur-kolonizatuaeren egokera hau' batez ere argi ta garbi agerten da Euskalherriko seminarioetan barna pasatu diren ex-seminaristak gan. Gure seminarista-ohi haukiek euskal kulturaren, españolaren kultur skhemak eta referentzien systêmak sartzen dituzte eta beren ingnorarantzia kapitalean, munduan dagoen kultura gorena, ia ia bakharra erdal kultura dela uste dute. Bainan euskal mikro intelektual hoiek beren kultur-gintzaren bidez Euskalherria beren izkribuez desnazionalizatzen dute, hunen egiteko euskara erabil dezatenarren.

Hona, ba, bi ikuspuntu.

Españiatik begiratuta, Basaldua lekuko, Euskadi, Euskal Herria bera, euskal historia, pertsegizioak, genozidioa... hori dena asmakuntza hutsa da. Eta horren errudun, apaizak eta hauen bereterrak.

Euskal Herriko goimailako kulturaren Olinpoaren gailurretik begiratuta, Krutwig lekuko, euskal kulturarik ez dago, denok alienatuta gaude, mikrointelektuala besterik ez dago bazterretan. Errudun? Apezkumeak.

Bi ikuspuntuok arrazoi ote? Baten ustez, euskalduntzearen errua, apaizak. Bestearen ustez, espainiartzearen errua, apaizak. Negoziaketa modan dagoen honetan, «Bake-mahainaren» inguruan bildu beharko lukete lehenbailehen Basalduak eta Krutwigek. ■ *Joan Larrinaga.*